

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANTARONGO UDALA

2020ko OHZren ordainagiriak kobratzeko moduan jartzea

Jendeari jakinarazten zaio 2020ko urriaren 13tik aurrera kobratzeko moduan jarriko direla, borondatezko epean, honako hauen 2020ko ordainagiriak:

– Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zerga.

1. ORDAINTZEKO EPEA.

A) Borondatezko aldia: 2020ko urriaren 13tik abenduaren 18ra, biak barne.

B) Betearazte aldia, ehuneko 20ra arteko errekaruarekin: 2020ko abenduaren 21etik aurrera betearazte aldiko errekaruak, premiamendu murriztukoak eta ohiko premiamenduzkoak ordaindu beharko dira, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. ORDAINTZEKOTOKIA ETA MODUA.

A) Banketxeetan helbideratutako ordainagiriak: Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute beste izapiderik egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa. Dena den, zergadunek jakin bezate ordainketa helbideratzeen altak eta aldaketak Udalean izapidetu behar direla. Ordainagiriak 2020ko abenduaren 14an kobratuko dira.

B) Helbideratu gabeko ordainagiriak: zergadunek udal bulegoetan ordaindu beharko dituzte, borondatezko epean, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Komunioi, 2020ko irailaren 30a

Alkatea

JAVIER URIARTE JAIRO